CONTACTLESS IRTENBIDE TEKNOLOGIKOEN KATALOGOA:

CHECK-IN -OUT

TURISTECH BILBAO
2021EKO MAIATZA

Laguntzaileak:

Bilbao Ekintza

inno lab bilbao

ITH INSTITUTO TECNOLÓGICO HOTELERO

SARRERA

TurisTech Bilbao proiektua abiapuntu hartuta sortu da katalogoa. Hain zuzen ere, **Bilboko Udalak Bilbao Ekintza** garapenerako agentziaren bitartez eta **INNOLAB Bilbaoren** lankidetzarekin sustatu duen proiektu bat da, eta **teknologiak turismo-sektoreari eskaintzen dizkion aukerak aztertzea du xede, betiere, eraldaketa digitalean tresna gisa erabiltzea indartzeko.**

Jakin badakigu **oso garrantzitsua dela turismo-ostatuetan digitalizazioa bermatzea**; hori dela eta, **contactless teknologiak langile zein bisitariek eduki behar duten osasun-babesa eta -segurtasuna bermatzen du,** batik bat, **harremanik gabeko prozesuak** premia bihurtu diren garai honetan.

Hoteletako Institutu Teknologikoarekin (ITH) batera garatu da ekimena, eta turismo-sektorearen eskari zehatz honetarako contactless zerbitzuari erantzuna ematen dioten irtenbide teknologiko batzuk aurkeztu dira bertan.

Dokumentuak zenbait deskripzio-fitxa ditu, non **check-in eta check-out prozesuetan** erreferentzia diren askotariko hornitzaile teknologikoak zerrendatuko diren, bai eta ostatuen i**ndustriarako interesgarriak diren** beste contactless irtenbide batzuk ere.

CONTACTLESS IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK: CHECK-IN, CHECK-OUT

CHAPP SOLUTIONS ZUCCHETTI
Chekin
Easygoband much easier
Face2Travel
hoomvip More than welcome
innovahotel SOLUCIONES TECNOLÓGICAS para HOTELES
TuLlave
OMNITEC
Onity
STAY my way
TESA ASSA ABLOY
Zennio

OSTATUEN INDUSTRIARAKO BESTE CONTACTLESS IRTENBIDE BATZUK

ALO LOCKER BILBAO
BARS & RESTAURANTS BR
Chef's Voice
Chef's Voice menú para todos
futura VIVE
hl hotelinking
hotelkit
ojmar INTELLIGENT LOCKING SYSTEMS

AURKIBIDEA

CONTACTLESS IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK: CHECK-IN, CHECK-OUT

Chapp Solutions 5 or.
Chekin 6 or.
Easygoband 7 or.
Face2travel 8 or.
Hoomvip 9 or.
Innovahotel 10 or.
TuLlave 11 or.
Omnitec 12 or.
Onity 13 or.
STAYmyway 14 or.
TESA-ASSA ABLOY 15 or.
Zennio 16 or.

OSTATUEN INDUSTRIARAKO BESTE CONTACTLESS IRTENBIDE BATZUK

A Lo Locker 17 or.
BR Bars&Restaurants 18 or.
Chef´s Voice 19 or.
Futura VIVE 20 or.
Hotelinking 21 or.
Hotelkit 22 or.
Ojmar 23 .

CHAPP SOLUTIONS
ZUCCHETTI

Contactless: check-in, check-out

Autozerbitzurako kioskoa, hotel-kudeaketa, aplikazio mugikorra, QR kodea

Enpresaren izena

Chapp Solutions

Irtenbidearen izena

POK Point of Kiosk

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Hotelen sektorean berritzaileak izateko diseinatutako autozerbitzurako kioskoa, zeinak hoteletako check-in prozesua optimizatuko duen, bai eta eragiketen kostuak murriztu eta ilarak saihestu ere. Harreragileak anfitrioi-lanak egin ditzake, eta aldi berean arreta zenbait bezerori eman, check-in prozesua bete dezaten. Horrela, bezeroarekiko arreta hobetuko da, eta hoteletako onurak maximizatuko dira.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

POK Hotel Check In irtenbide integral bat da, eta honako funtzionaltasun hauek barne hartuko ditu: hizkuntza ugari, kreditu-txartelarekin ordaintzea, bideo-deiaren euskarria, sinadura-irudia, logelako giltza lortzea eta barra-kodea eta QRa irakurtzea prozesuak arintzeko eta check-in prozesua 30 segundoan burutzeko. Check-in prozesua arinago egiteko aplikazio mugikor bat erabili daiteke, eta pertsonalizazioa gehitu ahal zaio turismo-ostatuaren markara egokitzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Hotelak B&B, Petit Palace hotelak.

Jatorria: Kanariak

Webgunea www.chappsolutions.com/es/

Webgunea www.pointofkiosk.com

Harremanetarako

Andrea Suárez eta Eva Suárez / hello@chappsolutions.com / 928 459 581

AURKIBIDEA

Chekin

Contactless: check-in, check-out

Match biometrikoa, lege-erregistroa urruneko identitatea

Enpresaren izena

Chekin

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Check-in prozesu osoa automatizatzeko aukera ematen duen irtenbidea, erreserba egiten denean hasi eta check-out prozesua amaitu arte. Edozein motatako turismo-ostaturi aplika dakiokeen tresna (hotelak, etxeak, turismo-apartamentuak eta abar). Denboraren % 80raino aurreztu ahal izango da, eta diru-sarrerek gora egingo dute erreserba guztiekin. Merkatuan urruneko sarbidea eta PMS duten 50 integrazio baino gehiago edukiko ditu, % 100ean automatizatuta dagoen esperientzia eskaintzeko.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Chekin funtzionaltasunak guztiz automatizatuta daude: bisitariak identifikatzea eta erregistratzea, bidaiarien txostenak sortzea eta agintariei bidaltzea, match biometrikoaren bitartez nortasunaren urruneko identifikazioa egitea, online ordainketak, gordailuak eta bermeak, aseguruak, errentamendu-kontratuak, etxebizitzara urrunetik sartzea, upselling eta beste funtzionaltasun batzuk.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Mundu osoko 20 herrialde baino gehiagotako 15.000 jabetzatan ezarri da. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen.

Jatorria: Sevilla Webgunea www.chekin.com

Harremanetarako

Pepe Moreno / pepe@chekin.com / 652 862 715

AURKIBIDEA

Easygoband
much easier

Contactless: check-in, check-out

Hospitality digitalizazioa, integrazio-plataforma, kostuak murriztea

Enpresaren izena

Easygoband

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Hospitality, aisialdi eta ekitaldien sektorearen eraldaketa digitala errazteko irtenbideak. Hotelen eta turismoaren sektorerako Goguest irtenbide espezifikoa, plataforma integratzaile bat, zeinak hotelaren/esparruaren 360º-ko kudeaketa egiteko aukera ematen duen. Askotariko funtzionaltasunak dituzten hainbat modulutan oinarrituta, hotel osoarekin berehalako komunikazio zuzena edukitzeko check-in prozesua hasi eta check-out prozesua amaitu arte. Sistemaren bitartez, diru-sarrerak eta eragiketen eraginkortasuna handitzen dira, bai eta bezeroentzako bizipen hobeak sortu ere.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Bisitarientzako web-aplikazioari esker, contactless aukera ugari izango ditugu: aldez aurreko chek-ina, room servicerako eskaerak, hotelaren zerbitzuak erreserbatzea eta bisitariari erreserba edozein unetan kudeatzeko aukera emango dioten beste aukera batzuk, betiere, modu arin, erraz eta kontakturik gabe.

Goguest zerbitzuak beste funtzionaltasun batzuk ditu sistemaren barruan: zenbait motatako cashless ordainketak (txartela, logelan kargatze, PayPal eta abar), kontsumo-mugak, txanponak ordainketa-motaren arabera konfiguratzea, bisitarientzako sarbide-kontrolak, lagatako materialaren sarrera eta irteeren barne-kontrola eta estatistikak, bisitarien erabilera- eta kontsumo-ohiturei buruzko txosten eta neurriekin. Irtenbideak negozioaren arabera pertsonalizatu eta egokitu daitezke, eta hotelaren PMSrekin salmenta-puntuekin eta sarrailekin integratu. kudeaketarako panel eta plataforma bakarretik kontrolatzeko eta zentralizatzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Castelló Webgunea www.easygoband.com

Harremanetarako

Rafael Corral Gomez / rafa.corral@easygoband.com / 685 695 242

AURKIBIDEA

Contactless: check-in, check-out

Aurpegiaren biometrika, sinadura digitala, harrera birtuala, hotel-kudeaketa

Enpresaren izena

Face2travel

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Hoteletako check-in/out birtualen prozesuak digitalizatzeko irtenbidea. Aurpegiaren biometria egingo du aurpegiak ezagutzeko eta bezeroaren bizipena hobetzeko. Prozesuak digitalizatzeko aukera ematen du hoteletako jarduna optimizatzeko eta erreserba zuzena bultzatzeko. Horrez gain, egiaztatutako sinadura digitalaren irtenbidea dauka, hotela kudeatzeko erabiltzen den edozein PMSrekin integratu daitekeena, dokumentazioa egiaztatzeko.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Ziurtagiriak sinatzeko OTP eta Onboarding-eko OCR sistema: erreserba Smart Booking bitartez egiten du bezeroak, check-in prozesua aldez aurretik egiteko. Horrela, hotelera iristen denean sarrera 10 segundo baino gutxiagoan egin ahal izango du aurpegiaren egiaztagailuarekin. Heldu eta harrera birtuala eginez, bezeroari buruzko informazio guztia automatikoki gehituko da hotelean, eta, horrela, zuzenean sartu ahal izango da logelara. Tresnan, halaber, check-out prozesua egiteko ordainketa-sistema gehituko da, faktura birtualaren bidez, bai eta check-in car prozesua ere; izan ere, erreserba egiten denean ibilgailuaren matrikula erregistratu daiteke aparkalekuaren sarreran identifikatu eta zuzenean sartu ahal izateko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Hotelen kasuan, irtenbidea 2021eko ekainetik aurrera egongo da eskuragarri. MPV proba-bidean estatuko zein nazioarteko hainbat PMS-tan.

Jatorria: Alicant Webgunea www.face2travel.com

Harremanetarako

Oscar Nombela / gestion@face2travel.com / 665 228 751

AURKIBIDEA

hoomvip
More than welcome

Contactless: check-in, check-out

Aurpegiaren biometria, aplikazio mugikorra, turismo-informazioa kontrol energetikoa

Enpresaren izena

Hoomvip

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

"Kontakturik gabeko" kudeaketa integraleko irtenbidea, non mota guztietako turismo-ostatuen kudeaketa urrunetik eta % 100ean automatizatuta egiteko tresna teknologiko guztiak biltzen diren: sarraila elektronikoak, Auto Check In, kontrol energetikoa eta bisitarientzako aplikazioa.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Check-in/out prozesuaren automatizazioa eskaintzen du mundu osoko sarraila-fabrikatzaileen bermea duten sarbide-kontrolaren bitartez, hala nola Onity, Tesa Assa Abloy eta Salto Systems. Gainera, auto check-in izango du bisitarien dokumentazioa aurpegiaren biometriaren bitartez balidatzeko eta bisitarientzako aplikazio mugikorra ere bai, egonaldiari buruz beharrezkoa den informazio guztiarekin, leku horretan esperientziak eta zerbitzuak eskaintzeko eta komunikazioa optimizatzeko. Era berean, kontrol energetikoa egongo da klimatizazioa eta argiztapena piztu eta itzaltzea automatizatzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Honako bezero hauetan ezarri da: Be Mate, Zenit Hoteles eta Senator Hotels & Resorts. Honako hauek hautatu dute: Aparture (Euskadiko Turismo Apartamentuen Elkartea), Rentals Collection, FeelFree, Iberorent Apartments eta Aizlur, apartamentuak automatizatzeko.

Jatorria: Madril Webgunea www.hoomvip.com

Harremanetarako

Miguel Encinas / d.comercial@hoomvip.com / 916 659 327

AURKIBIDEA

innovahotel
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS para HOTELES

Contactless: check-in, check-out

Ostatuaren kudeaketa integrala, teknologia berriak, hotelen berrikuntza

Enpresaren izena

Innovahotel

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Turismo-ostatuetarako zerbitzuen plataforma, hotelen kudeaketarako eta komunikaziorako contactless irtenbideekin. Teknologia berrien zerbitzu integrala. Honako hauek barne hartzen dituzten irtenbide profesionalak ezarriko dira: turismo-ostatu bakoitzaren premia teknologikoen azterketa, aholkularitza eta kontsultoretza proiektu berritzaileak martxan jartzearen eta kudeatzearen garapena.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Ostatu bakoitzaren premia teknologikoen azterketaren araberako irtenbide profesionalak ezartzea: check-in prozesua aldez aurretik egiteko sistema, check-in online eta auto check-in (kioskoa), wireless sarraila elektronikoen bitartez sarbideak kontrolatzea, entretenimenduko IPTV irtenbideak, kudeaketa integratuko softwarea auto check-in gailuekin eta check-out eta beste IP komunikazio-irtenbide batzuk eta kanpoko sistemak eta gailuak integratzeko ekipamendu teknologikoa.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Gipuzkoa Webgunea www.innovahotel.com

Harremanetarako

Ander Etxebeste / comercial@innovahotel.com / 943 309 337

AURKIBIDEA

TuLlave

Contactless: check-in, check-out

Aplikazio mugikorra, sarraila adimendunak, NFC eskumuturrekoak

Enpresaren izena

TuLlave

Irtenbidearen izena

TuLlave +Smart

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Turismo-sektorerako irtenbide adimenduna, kudeaketa-lan guztiak tresna bakarrean egiteko aukerarekin. Sarraila adimenduak zabaltzeko eta baimenak kudeatzeko aplikazio mugikor bat eskaintzen du.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Check in online, logelak Android/IOS TuLlave + Smart aplikazioarekin irekitzea eta datuak zuzenean poliziari bidaltzea, esteka pertsonalizatu baten bitartez eta aplikazioa deskargatu beharrik gabe edo eskumutur adimendunen bitartez.

Funtzionaltasunak dira, besteak beste, kontsumizioak establezimenduan bertan esku-dirutan ordaindu behar ez izatea. Honako hauetan aplikatu daiteke irtenbidea: ateak irekitzea eta bidaiarien baimenak kudeatzea; oporretarako etxebizitzak, landetxeak, hotelak eta apartamentuak.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Hotel Urban Anaga, Apartamentos Brujas, Terrazas de Abama, Hotel Los Olivos Suits, Hotel Bohemia Suits & Spa, Hotel la Quinta Park eta abar.

Jatorria: Kanariak Webgunea www.millaveonline.com

Harremanetarako

Alejandro Afonso / alejandro.afonso@padword.es / 607 392 977
Javier Afonso / javier.afonso@padword.es / 627 532 959

AURKIBIDEA

OMNITEC

Contactless: check-in, check-out

Hotelen teknologia, etxebizitzarako sarbideak, mugikorra, Bluetooth

Enpresaren izena

Omnitec

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Omnitec enpresak sarraila elektronikoen, sarbide-kontrolen, kutxa gotorren eta mini-tabernen sorta handi bat garatzen, fabrikatzen eta merkaturatzen du. Turismo-ostatuetako eraikin eta instalazioetan sarbideak kudeatzeko segurtasun-irtenbideak eta gailuak eskaintzen ditu.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

- Hotelak eta Hospitality: sarraila elektronikoak, mini-tabernak, kutxa gotorrak, energia ekonomizatzaileak, sarbide-kontrolak eta hotelaren ekipamendu teknologikorako beste gailu batzuk. Mugikorraren bitartez irekitzeko sarraila elektronikoak, hurbileko sarrailak eta sarraila elektronikoak Bluetooth eta teklatuarekin.
- Oporretarako etxebizitzak eta turismo-apartamentuak: Rent&Pass irtenbidea, etxebizitzara sartzeko baimenak kudeatzeko sistema, ateak Bluetooth Low Energy (BLE) teknologiaren bitartez irekitzeko (mugikor guztietan eskuragarri). Apartamentuen kudeatzaile eta jabeei aukera ematen die bisitariei aldez aurretik giltza "birtualak" edo zenbaki-kodeak bidaltzeko, eta, horrela, joan-etorriak zein erabiltzaileekiko kontaktua ekidin.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Omnitec instalazioak mundu osoko turismo-ostatuetan eta hoteletan ezarri dira. Hauexek dira Espainian dituzten bezeroetako batzuk: Barceló, Melia, Iberostar, Tryp eta Silken hotel-kateak,besteak beste.

Jatorria: Zaragoza Webgunea www.omnitecsystems.com

Harremanetarako

Asun Liz / asun.liz@omnitec.es / 976 107 201 (Telefono-luzapena 101)

AURKIBIDEA

Onity

Contactless: check-in, check-out

Segurtasun elektronikoa, mugikor bidez irekitzea, sentsore bidez irekitzea, Bluetooth bidez irekitzea

Enpresaren izena

Onity

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

DirectKey™ Onity enpresaren Serene™ sarraila berrian gehitu da, eta Trillium® sortarako aukera gisa eskaintzen da. Bezero guztiei smartphone gailua logelako giltza gisa erabiltzeko aukera ematen dien irtenbidea da. Bluetooth® eta hodeiko teknologiak uztartzea, bezeroaren esperientzia hobetu daiteke tamaina guztietako hoteletan.

PMSren eta sarrailak kudeatzeko OnPortal™ sistemaren arteko integrazioaren bitartez, hotelek DirectKey ezarri dezakete check-in prozesua eta establezimendura sartzea kontakturik gabe egiteko. Horrela, hoteleko bezeroek ez dute harreratik igaro beharko eta zuzenean joan ahal izango dira logeletara. OnPortal irtenbideak, halaber, check-in ibiltaria eta sarbideen kontrol oso eta malgua egiteko aukera eskaintzen du ostatuko langileentzat.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

- Bluetooth teknologia Onity-ren aplikaziotik bertatik, hirugarrenen aplikazioetatik edo hotel-kateen fidelizazio-aplikazioetatik.
- Sarrailen irtenbide integratuak, check-in kioskoekin eta Smart TV sistemekin, besteak beste.

Onity-k digitalizazio-irtenbideak eta segurtasun elektronikoko sistemak eskaintzen ditu turismo-ostatu eta -hoteletarako, sarraila elektronikoak integratzeko banakako aholkularitzarekin, mugikorraren bidez irekitzeko aukerarekin. Horrez gain, zilindro elektronikoen sortan kutxa gotorrak, mini-tabernak eta energia kudeatzeko irtenbideak eskaintzen ditu, presentzia-sentsoreen sistema adimendunen bitartez.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Askotariko industrietako Bluetooth itxiturako 4 milioi gailutan instalatutako oinarri batean ezarrita. 2015. urtean hotelen marka nagusientzat merkaturatu ondoren, gaur egun 5.000 hotel eta 900.000 logela baino gehiagotan ezarri da mundu osoan.

Jatorria: Gipuzkoa Webgunea www.onity.com

Harremanetarako

Mikel Gorriti / mikel.gorriti@carrier.com / 943 448 381 / 660 459 665

AURKIBIDEA

STAY my way

Contactless: check-in, check-out

Biometria, modulu elektronikoak eta energia-kontrola

Enpresaren izena

STAYmyway

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Giltza mugikorraren eta cehck-in biometriko digitalaren irtenbidea turismo-apartamentu eta hoteletarako, eta ez dira gaur egungo sarrailak aldatu beharko; izan ere, erraz integratzeko modulu batzuk jarriz eta eguneratuz egingo baita. Egonaldia mugikorretik kudeatzeko aukera ematen dio bisitariari. Bestalde, hotel eta apartamentuek bisitariak sartzeko prozesuak optimizatu ahal izango dituzte, sektoreko PMS nagusiak integratuta. Bestalde, energia optimizatzeko irtenbidearekin hobekuntzak egin ahal dira energiaren kontsumoan eta kostuak aurrezteko orduan.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Turismo-apartamentu eta hoteletako jabe eta kudeatzaileei zuzendua, apartamentuen ustiapenaren errentagarritasunik handiena lortzeko, joan-etorriak saihestuz.

Tresna bateragarria da edozein fabrikatzaile-markarekin, eta bizitza-ziklo berri bat ematen die sarrailei, ostatuetarako kostu txikiagorekin. Check-in biometrikoaren sistemak bisitarien identitatea urrunetik egiaztatzeko aukera ematen du. Energia kontrolatzeko, bisitariarekin chatbot egiteko eta zarata kontrolatzeko aplikagarritasunak ditu, egonaldian bezeroaren esperientzia osoa hobetzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Giltza digitalarekin kudeatutako irekitzeak, 3 milioi baino gehiago. Accor hotel-katearekin lankidetza-hitzarmen bat du, irtenbide honi dagokionez katearen munduko hornitzaile bakar gisa, eta erabilera kasuak Hotel Gran Bilbaorentzat, esaterako, check-in/out prozesuetarako.

Jatorria: Murtzia Webgunea www. staymyway.com

Harremanetarako

Francisco Sánchez, Director Comercial / fsanchez@staymyway.com / 968 828 243

AURKIBIDEA

TESA
ASSA ABLOY

Contactless: check-in, check-out

Mugikorrarekin irekitzea, Wireless, RFID hurbiltasuna, tratamendu antimikrobianoa

Enpresaren izena

TESA - ASSA ABLOY

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

TESA Hotel irtenbidea sarbideen kontrol integrala egiteko, hotelen merkatuei zuzendua. Plataforma berean uztartzen ditu RFID hurbiltasun teknologia duten itxiturak/irakurgailuak/zilindroak dituzten sistemak. Bestalde, TESA Hotelen garapen berriei esker, establezimenduak pertsonen arteko kontaktuak murriztu ditzake, bestek beste, Openow™ irtenbideak, Check-In Pin eta tratamendu antimikrobianoa.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

- Mugikorrarekin irekitze adimenduna egiteko Openow™ irtenbidea. Bezeroei hoteleko ateak telefono mugikorrarekin irekitzeko aukera ematen dien aplikazio bat du, harrera-lekutik igaro beharrik gabe. Wireless online irtenbidearekin konbinatuta, sarrailak urrunetik kontrolatu daitezke denbora errealean.
- Hogeita lau orduko harrerarik egin ezin duten hotel txiki eta turismo-apartamentuetarako Check-In Pin irtenbidea. Bisitariari mezu elektroniko automatiko bat bidaltzen zaio, sartzeko kode batekin eta irtetean automatikoki ezeztatuta, zona komunetara eta logeletara harrera-lekutik igaro gabe sartu ahal izateko.

Era berean, eskutoki eta itxitura elektronikoei aplika dakiekeen tratamendu antimikrobiano bat dauka, mikroorganismoak zabaltzea ekiditeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Gipuzkoa Webgunea www.tesa.es/hotel

Harremanetarako

Amaia Izarra / Amaia.Izarra@assaabloy.com / 639 882 126

AURKIBIDEA

Zennio®

Contactless: check-in, check-out

KNX domotika, sentsorikoa, urruneko kontrola, Bluetooth, NFC

Enpresaren izena

Zennio

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Zennio enpresak domotikako KNX irtenbideak diseinatzen eta fabrikatzen ditu, hoteletarako BMS (Building Management System) instalazioen automatizazio-teknologian eta kudeaketa integralean espezializatuta. Askotariko contactless irtenbide teknologikoak eskaintzen ditu, hala nola sartzeko IDAC kontrola, zeinak bisitariari aukera ematen dion giltza digitala smartphone gailuari zuzenean lotuta eramateko, argiztapena aktibatzen duten mugimenduaren detektagailuak/sentsoreak, eta Zennio Remote moduko aplikazioa, zeinaren bidez KNX gailuak smartphonetatik kontrolatu daitezkeen, edozein une eta lekutatik.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Teknologiari esker, logela kontzeptualak sortu daitezke agertoki pertsonalizatuen bitartez, eta, horrela, in-room bizipen zoragarri eta bakarrak sortu. Besteak beste, honako contactless funtzionaltasun hauek nabarmendu behar dira: sartzeko kontrol bat, IDAC (In Door Access Control), bisitariak identifikatu eta Bluetooth edo NFC teknologiaren bitartez zona komunetara edo logeletara sartzeko aukera ematen diena (baimenen arabera); mugimenduarekin aktibatzen den argiztapena, eta Z41 Remote y Zennio Remote aplikazioak, erabiltzaileei ukitzeko pantailekin konexio zuzena eskaintzen diena, argiztapena, berokuntza, pertsianak eta KNX instalazio osoa smartphone gailutik kontrolatzeko aukera izan dezaten.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Toledo Webgunea www.zennio.com

Harremanetarako

comercial@zenniospain.com / 916 507 031

AURKIBIDEA

Beste contactless irtenbide batzuk

Kontsigna alokatzea, sartzeko kodeak, contactless giltzak ematea

Enpresaren izena

A Lo Locker

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

"Kontakturik gabeko" kontsigna automatizatuak alokatzeko zerbitzua, Bilbo bisitatzen duten turistei biltegiratzeko espazio bat eskaintzeko. Kontsigna erreserbatzeko sistema eta ordainketa Internet bidez egiten dira; horrela, kontaktu zuzena ekiditen da. Sartzeko kode bat lortzen da lokalera sartzeko eta locker/armairua erabiltzeko.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Bezeroari kontsignaren erreserba eta ordainketa Internet bidez egiteko aukera ematen du, eta, horren ostean, sartzeko kode bat lortzen du lokalean sartu eta dagokion "locker" hori erabiltzeko. Maletak eta bisitan egiten dituen erosketak biltegiratu ditzake bertan.

Apartamentuetako eta turismo-etxebizitzetako kudeatzaileek giltzak emateko zerbitzu bat dute. Horrela, errentariak kode pertsonal batekin sartu daitezke lokalera eta esleitutako kutxara, eragike-ta guztiak sisteman erregistratuta geratu daitezen.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

- Locker / Kutxak giltzekin: Bilboko Zazpi Kaleetan dauden turismorako etxebizitza eta aparta-mentuen kudeatzaileak edo jabeak.
- Locker / Maleten kutxak: Euskal Autonomia Erkidegoko turistak, estatukoak eta nazioartekoak.

Jatorria: Bilbo Webgunea www.alolocker.com

Harremanetarako

Manuel Echeverría Hernández / manu@alolocker.com / 689 571 074

AURKIBIDEA

BARS & RESTAURANTS BR

Beste contactless irtenbide batzuk

Aplikazio mugikorra, karta digitala, take away, delivery, ostalaritza

Enpresaren izena

BR Bars & Restaurants

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Esperientzia soil, arin, guztiz seguru eta bezeroarekin inolako harremanik izan gabe eskaintzen duten ostalaritzaren eta turismoaren sektoreko edozein establezimendu, taberna, jatetxe eta hoteletan eskatzeko eta ordaintzeko aplikazio mugikorra.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Horeca kanalerako kudeatzeko plataforman honako funtzionaltasun hauek barne hartzen dira: bezeroek hotelaren edo jatetxearen karta digitala ikusi ahal izatea, aplikaziotik bertatik eskatu eta ordaintzea, kontua mahaiko gainerako kideekin partekatzea, gustuen arabera iragaztea, nahi den establezimendu-motaren arabera bilatzeko, alergenoak jakinaraztea eta faktura digitala igortzea. Karta digitala eta mahaiko zerbitzua gehitzeaz gain, Take Away (eskaerak lokalean bertan hartzeko) eta Delivery (etxerako eskaerak) aukerak ditu, bai eta BR Coins izeneko sistema bat ere, bezeroek aplikazioaren bitartez egiten dituzten eskaeretan beherapenak izan ditzaten.

Era berean, txostenen eta datu-baseen funtzionaltasun bat du, salmenta-prozesuak optimizatzeko eta negozioaren errentagarritasuna hobetzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Madril Webgunea www. brbarsandrestaurants.com

Harremanetarako

Miguel Ángel del Pino / m.delpino@brbarsandrestaurants.com / 625 184 233

AURKIBIDEA

Chef's Voice

Chef's Voice menú para todos

Beste contactless irtenbide batzuk

Informazio gastronomikoa, QR kodea, hizkuntza-aniztasuna

Enpresaren izena

Puntodis

Irtenbidearen izena

Chef´s Voice

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Informazio gastronomikoa modu errazean zabaltzeko eta helarazteko web-zerbitzua. Bertan jasotako edukia irakurri zein entzun ahal izango da hautatutako hizkuntza guztietan. Gainera, alergenoei buruzko informazioa jasoko da. Erraz eguneratzen da, eta web-esteka edo QR kode baten bitartez sartu daiteke edukira.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

- **Erraz eta modu seguruan sartzeko aukera.** Esteka baten edo QR kode baten bitartez, aplikazio berririk gabe.
- **Tresna inklusiboa.** Diseinu irisgarria pantaila irakurgailuetarako, audio-botoia txertatuta, letraren tamaina handitzeko aukera eta alergenoen iragazkia.
- **Askotariko edukia.** Kartak, edaritegia, hotel-zerbitzuen informazioa, segurtasun-neurriak...
- **14 hizkuntza.**
- Edozein web-plataformatan edo plataforma fisikotan **erraz zabaltzeko aukera** web-estekaren edo QR irudiaren bitartez.
- **Autokudeaketa erraza**. Prezioak edo platerak modu erosoan aldatu daitezke mugikorretik. Bestalde, Chef's Voice taldeak ezartzeko zerbitzua dugu.
- Irisgarritasunari buruzko **Araudia betetzea** (UNE-EN 301549:2019), bai eta alergenoei buruzkoa ere (UE 11691/2011).
- **Pertsonalizazioa** logoekin, koloreekin eta irudi-galeriarekin.
- **Eskaeren pasabidea.**
- **Webguneko kokapena hobetzea.**

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Bilbo, Santurtzi, Getxo, Suances, Vilajoiosa, Madril eta abarreko jatetxeak eta hotelak.
Segittur-en hornitzaile ofizialak DTIrako. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen.

Jatorria: Bilbao Webgunea www.puntodis.com

Harremanetarako

Jon Ibarra / jon@puntodis.com / 629 449 667

AURKIBIDEA

Beste contactless irtenbide batzuk

Errealitate birtuala, robot soziala, hologramak, telepresentzia

Enpresaren izena

Futura Vive

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Futura VIVEk langile zein bezeroen segurtasuna bermatzeko robot sozialak, errealitate birtuala eta hologramak fabrikatu eta banatzen ditu. Askotariko sektoreetako enpresa txiki eta handien premiatara egokitzen den software bat du, ekitaldiak, jatetxeak eta hotelak zein Retail sektorea barne hartuta.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Negozioetarako robot sozial hauek eskaintzen ditu: harrerarako robota hoteletan, jatetxeetarako robot zerbitzaria, desinfektatzeko robot sanitarioak eta telepresentziako robotak, bai eta adimen artifizialaren bitartez bezeroari arreta emateko, hitzorduak kudeatzeko, tenperatura hartu eta kontrolatzeko zein edukiera kontrolatzeko funtzionaltasunak ere. ePeople Contactless laguntzaile birtual holografikoa salmenta-puntuan dagoen sustatzaile bat da, eta edozein telebista, Videowall edo monitoretan erabili daiteke negozioaren produktuak eta zerbitzuak sustatzeko.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Honako enpresa eta erakunde hauetan ezarri da: Grupo Clece, Ayuntamiento de Madrid, Pide Taxi, Space Techies, Only You Hoteles, GSS Seguridad, Beso Beach. Harrera-leku, hotel, jatetxe, osasun eta beste sektore batzuetarako teknologia eta robotika.

Jatorria: Madril Webgunea www. futuravive.com

Webgunea www. grupoadd.es

Harremanetarako

Roberto Menéndez / info@futuravive.com / 918 388 556

AURKIBIDEA

hotelinking

Beste contactless irtenbide batzuk

Hotelen automatizazioa, marketina, fidelizazioa, Wifi soziala, Gauzen Interneta

Enpresaren izena

Hotelinking

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Bisitariei % 100eko contactless esperientzia eskaini nahi dieten hotel independente eta kateetarako bereziki diseinatutako tresnen suitea. Honako hauek lortzen lagunduko die hotel-markei: prozesuak digitalizatu, bisitariak hobeto ezagutu eta haiekin harremanetan egon, ospe-ona hobetu, erreserba zuzenak ugaritu, bezeroak fidelizatu eta hoteleko wifi sarearen funtzionamendua monitorizatu. Produktu teknologikoen multzo horrek modu autonomoan eta elkarrekin integratuta funtzionatu dezakete, sinergia bakarrak sortuz eta automatizazio-maila egokia baimenduz.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

- **Autocheckin:** jendea pilatzea ekiditeko check-in eta check-out prozesu osoa digitalizatu eta contactless esperientzia % 100ean eskaintzen duen sistema.
- **Social wifi automation:** hotelari bisitariaren inguruko informazio gehiago edukitzen, haiekin konektatzen eta kanal zuzenaren bitartez bezero errepikatzaile bihurtzen lagunduko dion funtzionaltasunen multzoa.
- **CRM:** posta elektronikoko marketin kanpaina pertsonalizatuak egiteko aukera emango du, segmentatuta, bai eta salmenta zuzenak ugaritzeko eta bisitariak fidelizatzeko ere.
- **Bellbot:** webguneko erabiltzaileak bezero bihurtzen eta erreserba zuzenak ugaritzen laguntzen duen laguntzaile birtual automatizatua.
- **Wifibot:** Gauzen Internet bidezko sistema, zeinak hotel baten wifi azpiegitura monitorizatzen eta arazoak denbora errealean eta automatikoki konpontzen dituen.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

1.000 hotel baino gehiagotan ezarriko da, besteak beste, Hipotels, Alua Hotels & Resorts, Bluesea, Hotels Center, Best Hotels, Hoteles Globales, Grupotel, HM Hotels...

Jatorria: Balear Uharteak Webgunea www. hotelinking.com

Harremanetarako

Daniel Alzina / sales@hotelinkng.com

AURKIBIDEA

hotelkit

Beste contactless irtenbide batzuk

Komunikazio, hotel-kudeaketa eta optimizazio softwarea

Enpresaren izena

Hotelkit

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Dena batera egiteko eragiketen plataforma. Hotelen kudeaketa eta eragiketak sinplifikatzen laguntzen du, bai eta lantalde eta sail guztien artean produktibitatea handitzen ere. Komunikazio-plataforma nagusi bat da. Bertan, hotelaren operazio-prozesu eta estandar orokorrei zein sail bakoitzaren berezitasunei buruzko informazio garrantzitsu guztia biltzen da, kalitaterik onena bermatzeko.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Hotelkit Collaboration & Service Optimization eta Hotelkit Housekeeping produktuak barne hartzen ditu, barne-prozesuak eta garbiketa-prozesuak digitalizatzeko. Hoteletako langileei tresna digital egokiak ematen dizkie txanda-aldaketetan informazioa partekatzeko, eguneroko zereginak egiteko, konponketa-lanak egiteko, egiaztatze-zerrendak osatzeko edo bisitarien eskaerei erantzuteko, besteak beste.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Kontsultatu hemen.

Jatorria: Salzburgo, Austria Webgunea www.hotelkit.net/es/

Harremanetarako

Teresa de Pablo / teresa.depablo@hotelkit.net / 919 034 590

AURKIBIDEA

ojmar®
INTELLIGENT LOCKING SYSTEMS

Beste contactless irtenbide batzuk

Itxitura adimenduna, urrunetik desblokeatzea, RFID, Bluetooth

Enpresaren izena

Ojmar, S.A.

Contactless check-in/out irtenbidearen deskribapena

Itxitura adimenduko sistemak, hala nola itxitura mekanikoak eta kodea duten sarrailak, bai eta Bluetooth® eta RFIDrekin integratutako itxitura-irtenbideak ere.

Kutxetarako OCS Smart sarraila irtenbidea: aplikazio bidez erabiltzeko sarraila, Android zein iOS sistemekin bateragarria. Erabilera eta kudeaketa sinplifikatuko dira gaur egungo egiaztatze-tresnarekin: smartphonea. Kudeaketa esklusiboko aplikazio bat du, zeinak urrunetik desblokeatzeko aukera ematen duen.

Irtenbidearen funtzionaltasunak eta aplikagarritasuna

Bluetooth® teknologia duala eta teklatu digitala sartzeko kontrolarekin eta hotelak kudeatzeko softwarearekin integratu daitezke. Bereziki egokia trafiko ugari duten espazio eta instalazioetarako. Smartphone baten bitartez eta kontakturik gabe sartzea sarraila bat erabiltzeko modurik higienikoena da.

Erabiltzeko kasuak eta erreferentziak

Balneario Elgorriaga, Bilbao Kirolak.

Jatorria: Gipuzkoa Webgunea www.ojmar.es

Harremanetarako

Aitor Elorza (Director Comercial y Marketing) / sales@ojmar.com / 943 748 484

AURKIBIDEA

Bilbao Ekintza

Laguntzaileak:

inno lab bilbao

ITH INSTITUTO TECNOLÓGICO HOTELERO

Kontaktua:

María Ortega

944 205 324
mortega@bilbaoekintza.bilbao.eus

Asier Larrinaga

944 205 370
alarrinaga@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskaintzen direnekin zerikusia duten zerbitzuak ematen dituzten enpresek, katalogoaren eguneraketan agertu nahi izanez gero, posta elektroniko honen bidez egin dezakete:

sectortsc@bilbaoekintza.bilbao.eus